

Korra ebakitzailea

Deskribapena:

Zintak mozteko makina baten prototipoaren fabrikazioa, enpresak garatutako planoen arabera, prozesu manual bat automatizatuz eta aldez aurretik garatuta zuten diseinu batetik abiatuta. Proiektuak hainbat elementu komertzial eta mekanizatu beharreko pieza ugari ditu, egitura metaliko baten gainean kokatuta eta hiru zatitan desmuntatzen dena.

Egindako lana

Lau ikastetxeren artean banatu zen. CIFP IURRETA LHII eta Lea Artibai mekanizatu beharreko piezataz arduratu ziren, Izarraitz egitura eta bestelako galdagintzako elementuetaz eta azkenik La Salle ikastetxeak guztiaren muntaia eta proiektuaren kudeaketa burutu zuen. Proiektuak ondorengo faseak izan zituen:

- Elementuen fabrikazioa.
- Gainazal tratamenduak: zinkaketa, margoketa ...
- Pieza eta elementu komertzialen jasoketa eta balidazioa.
- Muntaia.
- Diseinu akatsen balorazioa eta zuzenketa: pieza batzuk berreginez edo elementu berri batzuk gehituz.
- Funtzionamendu egokia lortu.

